

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA						2017-2018	
ARLOA / GAIA	KULTUR ZIENTIFIKOA INGELESEZ					DATA		2017-09-27
ETAPA - MAILA	1 DBH	2 DBH	3 DBH	4 DBH	1 BATX.	X	2 BATX.	

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK
<p>1.– Jakintza zientifikoak hainbat testuingurutan erabiltzea, eta eguneroko egoeretan aztertzea zientziak zer harreman duen teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin, gizakiak dituen arazo lokalei eta globalei buruzko erabakietan herritar gisa parte hartzeko, bizitza pertsonala eta soziala hobetzen laguntzeko, ingurumena mantentzen, babesten eta hobetzen laguntzeko eta, funtsean, gizaki guztientzako etorkizun egokia eta jasangarria eraikitzeko.</p> <p>2.– Problema identifikatzea, planteatzea eta konpontzea, ikerketa txikiak egitea –bakarka edo taldeka–, gero eta autonomia gehiagorekin erabiltzea zientzien estrategiak, eta lan zientifiko saiakuntzaren eta sormenaren bidez egiten dela ohartzea, modu kritikoan eta testuinguruaren barruan ekin ahal izateko interes zientifiko edo soziala duten eguneroko egoerei.</p> <p>3.– Informazio zientifiko bilatzea, interpretatzea eta adieraztea terminologia egokia eta hainbat euskarri eta baliabide erabiliz –analogikoak nahiz digitalak–, modu zehatzean, arrazoituan eta kritikoan komunikatu ahal izateko gizarte eta ingurumen arloko gai zientifiko eta teknologikoei buruz.</p> <p>4.– Nork bere iritzien bidez arrazoitzea, eztabaidatzea eta balioestea jakintza zientifikoei buruzko proposamenak eta aplikazioak, jarrera zientifikoak eta balio sozialak erabiliz, pertsona moduan hazteko, eta pertsonen arteko harremanak eta gizarteratzea hobetzeko.</p> <p>5.– Ideia zientifikoak etengabe eraikiz doazela ohartzea –testuinguru kultural, sozial eta ekonomikoaren mende–, debate zientifikoek giza jakintzari egindako ekarpenak balioetsiz, era horretan pentsamendu kritikoa garatzeko, zientziaren dimentsio kulturalaz konturatzeko, eta gizartean eta ingurumenean dituen ondorioak balioesteko.</p>	

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
17	Zientzia Metodo zientifikoak Esperimentuen diseinua Ikerketa proiektua Txosten zientifikoak Aurkezpen zientifikoak Gure lekua unibertsoan	17	Informazioa zientifiko komunikatzeko moduak Aurkezpen zientifikoak Lurra eta bizia Biomedikuntzaren aurrerapenak Iraultza genetikoak Informazio- eta komunikazio teknologia berriak Pseudozientziak	17	Pseudozientziak. Pentsamendu kritikoa. Zientzia hedabideetan Nutrizioa Informazio- eta komunikazio teknologia berrien erabilera

3	METODOLOGIA
<p>Lanak batez ere taldeka landuko dira: esperimentuen diseinua, txostenak, posterrak, aurkezpenak, bideoak...</p> <p>Hainbat testu irakurri beharko dira eta haien iruzkin kritikoa landu beharko da.</p>	

4	BALIABIDEAK
<p>TESTU LIBURUA: Berez egindako apunteak eta aurkezpenak EDITORIALA:</p>	

5	EBALUAZIO SISTEMA			
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK				
Aurkeztutako lanen kalitatea eta egokitasuna. Bai taldean egindakoak bai bakarka eskatutakoak.				
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA		KONTZEPTUAK eta PROZEDURAK		% 90
		LANA		% 10

6	BERRESKURAPEN SISTEMA
<p>1. EBALUAZIOA GAINDITU EZ DUTENEK: Lortu ez duten helburu bakoitzeko lana berriz egin beharko dute, aurrekoa zuzendu eta hobetzeko adierazi eta gero.</p> <p>2. HIRUGARREN EBALUAZIOA ETA GERO: Lortu ez duten helburu bakoitzeko lana berriz egin beharko dute, aurrekoa zuzendu eta hobetzeko adierazi eta gero. Lan hauek izango dira gainditzeko modu bakarra.</p>	